

INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA S.A.n (IZFE S.A.) HAINBAT LANPOSTU BETETZEKO HAUTATZE PROZESUETARAKO DEIALDIA ETA BALDINTZAK

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte S.A.n (aurrerantzean IZFE S.A.) hainbat lanpostu betetzea. Deialdia publikoa eta irekia da, eta OTEIC Taldearekin, langileak aukeratzeko enpresaren laguntzarekin eramango dira aurrera hautatze prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasun, merituz, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan harturik.

Honako hauek dira, sortuko diren errelebo beharrak direla-eta, langile behar premiazkoak eta geroraezinak betetzeko deitutako postuak:

- Garapeneko Teknikaria*.
- Sistemetako Teknikaria*.

** Gehienez eta guztira 16 postu bete ahal izango dira, baina egiaz sortzen diren errelebo beharren baitan egongo da hori guztia.*

Lanbide eta antolakuntza proiektu sendoan sartzea planteatzen da, plantilla gaztetzeko planean murgilduta dagoena, informazioaren sistemen eta teknologien esparruan garapen profesionala izateko ahalmen handiarekin, eta familia eta lan bizitza bateratzeko neurri multzo handiarekin.

Orientagarri gisa, ordainsaria urtean 31.400 € gordin izango da bi lanpostuetarako.

Plantillan sartzea eskaintzen da, kontratazio mugagabea egiteko aukerarekin, une bakoitzean aplikatu beharreko legezko xedapenek horretarako aukerarik ematen badute.

I. eranskinean jaso da deitutako postuen deskribapen nagusia.

Ezintasunak dituzten pertsonen artean betetzeko gordeko da garapeneko teknikariaren postu bat, halakotzat harturik azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako ezintasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 4. artikuluan zehaztutakoak, baldin eta hautatze prozesua gainditzen badu eta duen ezintasun maila eta dagokion postuko lanak betetzea bateragarriak direla egiaztatzen badu.

Erreserbatutako postua hutsik gelditzen bada, hautatze prozesua gainditu duten gainerako hautagaien artean beteko da.

Deialdi honetako behin betiko emaitzak argitaratzean, baliogabe geratuko dira Garapeneko Teknikariei eta Sistemetako/Txandakako Ustiapeneko Teknikariei buruzko aurreko hautatze prozesuetatik etorritako langileen zerrendak. Era berean, jakinarazten da, hautatze prozesu honen arabera onartutako langileen zerrenda baliogabe geratuko dela etorkizunean egin litekeen prozesu berri baten behin betiko emaitzak argitara ematean.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Deialdian onartua izateko eta, hala behar badu, dagokion hautatze prozesuan parte hartzeko, honako baldintza baztertzailerik hauek bete beharko dira eskariak aurkezteko epea bukatzen denerako (2017ko urtarrilak 30):

- a) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- b) Europako Batasuneko kide den Estatu bateko hiritartasuna izatea, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu daitezkeen Estatu bateko herritartasuna izatea.

Era berean, Europako Batasuneko Estatu baten herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, eta baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, 21 urtetik beherako ondorengoak badira edo adin hori baino handiagoa izan arren, haien bizkar bizi direnak badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan ez dauden eta legezko bizilekua espainiar estatuan duten atzerriarrek hartu ahal izango dute parte. Aukeratuak suertatzen badira, kontratuak gai duen jarduerara egiteko administrazio baimena eduki beharko dute kontratua formalizatu aurretik.

- c) Gradu unibertsitate titulua ofiziala izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak izatea honako alor hauetan:
 - a. Informatika Ingeniaritzako titulua edo homologagarria (esate baterako, lehengo Ingeniaritza, Informatika Lizentziatura unibertsitate titulazio ofizialak) Garapeneko Teknikaria aukeratzeko prozesurako.
 - b. Informatika Ingeniaritzako, Telekomunikazioetako titulua edo homologagarria (esate baterako, lehengo Ingeniaritza, Informatika Lizentziatura edo Telekomunikazioetako Ingeniaritza unibertsitate titulazio ofizialak) Sistemetako Teknikaria aukeratzeko prozesurako.Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatuko duen agiria eduki beharko dute.

- d) Euskara ezagutzaren C1 mailako edo homologariaren ziurtagiri ofiziala edo, hala behar badu, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria izatea.
- e) Lanpostuak bere dituen lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea: Dagozkion lanak egiteko eragozpenak sortuko dizkion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

Hautagaiak onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datarako bete behar dituzte baldintza horiek eta betetzen jarraitu lan kontratua sinatu arte, e) atalean adierazitakoa izan ezik, hura mediku zerbitzuak egiaztatu beharko baitu kontratazioaren justu aurretik.

Prozesuaren edozein unetan hautatze batzordeak jakiten badu hautagairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, prozesutik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

HIRUGARRENA. ONARTUA IZATEKO ESKAERA.

Hautatze prozesuan parte hartzeko onartua izateko eskaera orria (III. eranskina) behar bezala bete behar da, eta honako baldintza hauek izango ditu:

- a) Parte hartu nahi duten pertsonak onartuak izateko eskaera orrian adierazi beharko dute bigarren baldintzan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, onartuak izateko eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den datari begira betiere.
- b) Aurkezteko lekua edo bidea:
 - Aurrez aurre honako helbide honetan: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Erakina, 1. Solairua - 20018 Donostia
Aurrez aurre aurkezteko ordutegia 9:00etatik 18:00ak arte izango da, asteleheneretik ostegunera, eta 9:00etatik 15:00ak arte ostiraletan.
 - Posta bulegoetan, bidalketa ziurtatuaren bidez, aurreko helbidera zuzenduta. Gutun-azal irekian aurkeztuko dira, Postako langileek data eta zigilua jarri ahal izateko, onartuak izateko eskaera orriak aurkezteko epearen barnean. Horrela egiten bada soilik ulertuko da Posta bulegora eraman diren egunean sartu direla eskariak. Onartua izateko eskaera orrian jarri behar dira data eta zigilua.
 - Posta elektronikoaren bidez seleccion@oteic.com helbidera, gaian "CONVOCATORIA IZFE, S.A. 2017 DEIALDIA" adierazita.
- c) Onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau prentsan argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2017ko urtarrilaren 16tik 2017ko urtarrilaren 30 arte, biak barne.

Honako dokumentazio hau aurkeztuko da arestian aipaturiko eskaera orri horrekin batera:

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo identifikazio dokumentu baliokidea.
- Curriculum Vitae eguneratua.
- Informatikako, Telekomunikazioetako Ingeniaritzako gradua unibertsitate titulu ofiziala edo homologagarria, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela egiaztatzen duen agiria.
- Euskara mailaren ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da merituen baloratzeko esperientzia (Lan biziak, eskaera egiten den data eguneratua), baina beste adierazpen ziurtagiri batzuekin osatu ahal izango da, hala behar bada.
- Ezintasunak dituzten pertsonen kasuan: organo eskudunak egindako ziurtagiria, legez % 33ko ezintasun maila edo handiagoa aitortzen duena, eta hala badagokio, probetan denbora edo/eta baliabideak egokitzeko beharra.

Eskatutako dokumentazioaren fotokopia arrunta aurkeztea onartuko da. Hala ere, IZFE S.A.k, aurkeztutako dokumentazioa/informazioa egiazkoa den egiaztatzeko eskubidea izango du, eta egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten pertsonak hautatze prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu automatikoki. 2. fasean eskatuko da jatorrizko dokumentazioak aurkezteko, seigarren baldintzan adierazten den bezala.

Gaztelania edo euskara ez bestelako edozein hizkuntzatan dagoen dokumentazio oro zinpeko itzultzaileak itzulia aurkeztu behar da, baloratua izan dadin.

LAUGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA.

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, bederatzigarren baldintzan adierazitako bideetatik argitaratuko da onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Aipaturiko zerrenda horretatik kanpo geratu diren pertsonak 3 laneguneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, kanpoan uzteko arrazoi izan diren okerrak edo ez egiteak zuzentzeko edo egokitzat hartzen dituzten alegazioak planteatzeko. Horretarako, alegazio orri bat egongo da eskuragarri IZFE, S.A.ren web orrian, eta baita OTEIC Taldearen bulegoetan bertan ere.

Behin-behineko zerrendak behin betiko bilakatuko dira alegaziorik ez bada aurkezten. Alegazioak aurkezten badira, haiek onartu edo gaitzetsi egingo dira, hala badagokio, behin betiko zerrendak onartuko dituen beste ebazpen baten bidez, eta aurrekoaren modu berdinean argitaratuko dira horiek ere.

Behin-behineko zerrendetatik kanpo geratu diren pertsonak, jarritako epean haien aurka alegazioa aurkeztu dutenak, badaezpada ere azterketetara aurkeztu ahal izango dira, planteatutako alegazioa data horretarako ez bada erabaki.

BOSGARRENA. HAUTATZE BATZORDEA.

Honako hauek osatuko dute Hautatze Batzordea:

Batzordeburua:

- IZFE, S.A.ko Zuzendari Nagusia

Batzordekideak:

- IZFE, S.A.ko Zuzendariondokoa
- IZFE, S.A.ko Administrazio eta Finantza arloko burua.
- IZFE, S.A.ko Pertsonen Teknikaria

Idazkaria:

- Administrazio Kontseiluko idazkaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu hautatze batzordeak, eta beharreko erabakiak hartuko ditu fase bakoitza behar bezala gara dadin lortzeko, haietan aurreikusi ez diren kasuei begira aintzat hartu behar diren irizpideak zehaztuta. Era berean, fase bakoitzeko baliabideak baliozkotuko ditu eta sortzen diren gorabehera guztiak konponduko ditu.

Hautatze batzordeak beharreko neurriak hartuko ditu azterketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, eta parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla ziurtatzeko.

Hautatze batzordeak bere lanetarako aholkulari edo enpresa espezializatuak eduki ahal izango ditu egokitzat hartzen dituen azterketetako probak egiteko.

Hautatze Batzordeko kide bat ezin bada joan, IZFE, S.A.ko Zuzendaritza Nagusiak haren ordezkoa izendatuko du.

SEIGARRENA. HAUTATZE PROZESUAREN GARAPENA.

Postu bakoitzerako hautatze prozesua hainbat fase baztertzailetan egingo da, hauxe da, gaitasunen analisia eta ezagutzen analisia, eta elkarrizketa/k eta analisi pertsonala eta konpetentziala.

Era berean, alegatu eta behar bezala egiaztatu diren merituek baloratuko dira. Behar bezala edo aski egiaztatu ez diren merituek ez dira baloratuko.

Honako fase hauetan banatzen da hautatze prozesu bakoitza (II. eranskina):

1. FASEA: Gaitasunen analisia eta ezagutzen analisia, bete beharreko lanpostuarekin loturiko gaitasun probak eta proba teoriko-praktikoak egingo dira. Honek 40 puntu izango ditu gehienez. Puntuazio handiena lortu duten 50 eta 25 hautagaiak (Garapeneko Teknikariaren prozesuan eta Sistemetako Teknikariaren prozesuan, hurrenez hurren) pasako dira hurrengo fasera. Berdinketa gertatuz gero zabaldu egingo da kasu bakoitzean puntuazio berdina dutenak sartu arte.

2. FASEA: Elkarrizketa/k eta Analisi pertsonala eta Konpetentziala. 2. Fasera pasatzen diren hautagaiei dei egingo zaie elkarrizketa/k edo/eta beste proba pertsonal batzuk, bakarka edo/eta taldeka, egitera joan daitezen, hautagaiak postu bakoitzerako eskatutako profilerako egokiak diren eta beharreko gaitasunak dituzten baloratzeko. Bi postuetan honako gaitasun hauek baloratuko dira, besteak beste: ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna, harremanak izateko eta komunikatzeko gaitasuna, aldatzeko eta berrikuntzarako prest egotea eta ikasteko gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, prestasuna eta dinamismoa. Gehienez 40 puntu izango ditu. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira fase hau gainditzeko.

Onartuak izateko eskaera orrian adierazitako datu guztiei dagokien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da fase honetan, erkatu ahal izateko. Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautatze prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

3. FASEA: Merituen balorazioa. Fase honek 20 puntu izango ditu gehienez. Dagokion onartua izateko eskaera orriaren bidez alegaturiko ondoko merituek baloratuko dira (ikus III. eranskina):

- Lan esperientzia: Edukiari eta erantzukizun mailari begira dagokion postuarekin loturiko lan esperientzia, 0,5 punturekin lan egindako seihileko bakoitzeko. Denbora txikiagoko zatiak ez dira kontuan hartuko. Gehienez 10 puntu.

Lanaldi partzialaren erregimeneko dedikazio denboraldiak daudenean, egiaz eskainitako dedikazio denborarekiko proportzionalki egingo da kontaketa.

Lan ibilbidearen xehetasunetan, III. eranskinean adierazi bezala, alegaturiko esperientzia bakoitzean egindako lanak zehaztu beharko dira.

- Prestakuntza osagarria, hautatze prozesuan parte hartzeko eskatutako titulazioaren gehigarria eta dagokion lanpostuaren xedearekin loturik dagoena. Gehienez 6 puntu.
 - o 30 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 50 ordu gehienez: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko.*
 - o 50 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 100 ordu gehienez: 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.*
 - o 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 200 ordu gehienez: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.*
 - o 200 ordutik gorako ikastaroak: 3 puntu.*

*2012ko urtarrilaren 1etik aurrera lortutako prestakuntza bakarrik hartuko da kontuan.

Lehengo Ingeniaritza, Informatika Lizentziatura edo Telekomunikazioetako Ingeniaritza unibertsitate titulazio ofizialek, 5 urteko iraupena duten karrerak izanik, Masterraren aintzatespen gehigarria izango dute meritua hau baloratzeko ondorioetarako, 4 punturekin.

Prestakuntza osagarriari dagokion meritua egiaztatzeko, haren iraupena (ordutan) zehaztu beharko da, eta dagokion ikastaroaren edo tituluaren egiaztagiria aurkeztu.

- Ingeles ezagutza, ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatua. Gehienez 4 puntu.
 - o 4 puntu ingeleseko C1 titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik.
 - o 2 puntu ingeleseko B2 titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik.

Alegatutako meritua ez badira aski edo behar bezala egiaztatzen, ez dira kontuan hartuko balorazioan.

Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da esperientzia (Lan bizitza, eskaera egiten den datara eguneratua). Hirugarren baldintza adierazten den bezala, beste adierazpen ziurtagiri batzuekin osatu ahal izango da, hala behar badu.

Prestakuntza osagarriari dagokion meritua egiaztatzeko, haren iraupena zehaztu beharko da (ordutan).

Hautatze batzordeak erabakiko du probak zein ordenatan egingo diren edo/eta hainbat proba egun berean egiteko erabakia hartu ahal izango du.

Hautatze batzordeak, edozein unetan, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die hautagaiei, eta horretarako, NAN edo, batzordearen iritziz hautagaiaren nortasuna aski egiaztatzen duen beste edozein dokumentu (pasaportea, gidabaimena, atzeritarren identifikazio zenbakia eta beste) eraman beharko dute azterketa bakoitzera. Ez badute hori egiten, kanpoan geldituko dira.

Bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabideetan argitaratuko da informazio guztia, eta gutxienez 72 ordu lehenago egingo dira probetara joateko deialdiak.

Azterketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie hautagaiei. Pertsona bat dei egin zaion unean ez bada azterketa bakoitzera joaten, automatikoki galduko du azterketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta horrenbestez, hautatze prozesutik kanpo geratuko da.

Azterketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dira ezintasuna duten eta egokitzapena behar duten pertsonentzat, baldin eta onartuak izateko eskaera orrian eskatu eta justifikatu badute, gainerako parte hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, betiere horrek ez badu probaren edukia indargabetzen, eta ez badu eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen.

ZAZPIGARRENA. ALEGAZIOAK.

Interesa duten pertsonak alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko emaitzak IZFE, S.A. ren web orrian argitaratu ondoren. Horretarako 3 laneguneko epea izango dute, argitaratu diren egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Interesa duten pertsonak bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabideetan argitaratutako alegazio orria bete beharko dute eta OTEIC Taldeari bidali horretarako jarritako epeetan.

Hautatze enpresak eta hautatze batzordeak erabakiko dituzte alegazioak.

ZORTZIGARRENA. LANEAN HASTEAN.

Hautatze prozesuak dituen fase guztietan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du behin betiko sailkapen ordena, baldin eta finkatutako irizpideen arabera gainditu badira fase horiek.

Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ordena zehazteko:

1. 1. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
2. 2. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Zozketa bidez.

Aukeratuak suertatzen diren hautagaiak egiazko errelebo beharren arabera plantillan sartuko dira, Elkarteko araudia beteko dute, eta osasun azterketa egingo dute, hura nahitaezkoa eta baztertzaila baita.

Eskatutako dokumentazioa ez badute aurkezten edo osasun azterketa egokia ez bada, kontratatzeko eskubide guztiak galduko ditu hautagaiak eta lan poltsatik kanpo geldituko da.

Sei hilabeteko probaldia izango du kontratatzeko proposatutako pertsona bakoitzak. Hautagaiak ez badu probaldi hori gainditzen, kontratatzeko eskubide guztiak galduko ditu eta lan poltsatik kanpo geldituko da.

Aukeratutako pertsona bati IZFE hasteko deia egitean, aukeratutako pertsona horrek uko egin ahal izango dio eskaintza zehatz horri. Kasu horretan, ulertuko da uko egitea behin betikoa dela, eta horrenbestez, uko egiten diela IZFE hasteko etorkizuneko deiei ere.

Dagokien hautatze prozesua gainditu ondoren, eskaintako plazetan lanean hasten ez diren pertsonak lan poltsa baten barnean geldituko dira Elkarrekin etorkizunean izan ditzakeen langile beharrak betetzeko lehen aipaturiko kontratazio formularen bidez.

Hautagai bakar batek ere ez badu lortzen oinarrietan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa probetan, hautatze prozesua bete gabe utzi ahal izango da. Kasu horretan beste deialdi bat hasi ahal izango du IZFE, S.A.k.

BEDERATZIGARRENA. INFORMAZIOA ARGITARATZEA.

Deialdiarekin eta hautatze prozesuarekin loturiko informazio guztia, proba bakoitzeko kalifikazioak eta proba desberdinetarako deialdia barne (gutxienez 72 ordu lehenago egingo da hori), puntualki emango da ondoko bide hauetatik:

- OTEIC Taldearen bulegoetan.
- Web orrian: www.izfe.eus

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Publizitate printzipioak arautzen du hautatze prozesu hau, eta horrenbestez, prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du hautagaiek onartu egiten dutela beren eskaera orrian IZFE, S.A.ri eman dizkieten datu pertsonalen tratamendua, hautatze prozesuko emaitza partzialak eta behin betikoak beharreko hedabideetan argitaratu ahal izateko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoaren arabera, hautaketan parte hartzeko eskaeraren bidez eskuratutako datu pertsonalei tratamendu automatizatua emango zaie eta IZFE, S.A.ren titularitateko “Langileen Kudeaketa” izeneko fitxategian sartuko dira (fitxategi hori behar bezala inskribatua dago Datuak Babesteko Espainiako Agentzia deitutakoan), hautatze prozesuan hautagai gisa duen parte hartzea kudeatu ahal izateko eta, hala behar badu, lan poltsan sartzea kudeatzeko.

Nolanahi ere, eskaera orria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak beharreko informazioa baduela eta bere datuak tratatzeko baimena ematen duela. Horrenbestez, berariaz onartzen du IZFE, S.A.k bere datuak jakinaraztea, oinarrietan jasotako baldintzen arabera argitaratuz. Argitaratuko den informazioa hautagai bakoitzaren NAN izango da, eta baita dagokion hautatze prozesuaren garapenean lortutako puntuazioak ere.

Era berean, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoaren arabera, parte hartzaileei jakinarazten zaie, hautatze prozesu honetarako ematen dituzten datu pertsonalak OTEIC Taldeak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa.



Gogorazten dizugu emandako datuak ikusi ahal izango dituzula eta, nahi izanez gero, datu horiek kendu, aurka egin eta zuzentzeko eskatu ahal izango duzula, aipaturiko lege horrek xedaturiko baldintzetan. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko zaio IZFE, S.A.n eta OTEIC Taldean datuen tratamenduaz arduratzen denari.

Bere egoera pertsonal zehatza tarteko, interesdunak bere datuak argitaratzearen aurka egoteko moduko funtsezko eta legezko arrazoiak baditu, hautatze batzordeari jakinarazi beharko dio, eta hark dagokion erabakia hartuko du arrazoiak azalduta.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 15ean

I. ERANSKINA - LANPOSTUEN DESKRIBAPEN NAGUSIA.

GARAPENeko TEKNIKARIA

Eginkizunaren azalpena:

Proiektuen garapen zuzena bermatzea, eskatutako baldintzak bete ditzaten. Horretarako, proiektuko taldearen partaide izango da eta dagozkion erabakiak hartuko ditu emaitzei, epeei, kalitateari eta kostuei buruz hainbat erantzukizun- eta konplexutasun-mailatan. Horrez gain, informatika-sistemen programazioa, dokumentazioa, eguneratzea eta mantentze-lanak gainbegiratzea.

Eskatutako gaitasun nagusiak:

- Ekimena
- Erabakiak hartzeko gaitasuna
- Harremanak izateko eta komunikatzeko gaitasuna
- Aldatzeko eta berrikuntzarako prestasuna eta ikasteko gaitasuna
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Prestasuna
- Dinamismoa

SISTEMETAKO TEKNIKARIA

Eginkizunaren azalpena:

Hardware edo/eta software informazioaren teknologia produktuak inplementatzea, mantentzea, eguneratzea, eragozpenak aztertzea, euskarri ematea eta haien jardunetik etorritako arazoak konpontzea (sistema eragilea, biltegiatze administrazioa, komunikazioak eta sareak, segurtasuna, datu-baseak eta bestelako azpisistemak) erabilgarritasun eraginkorra bermatzeko.

Eskatutako gaitasun nagusiak:

- Ekimena
- Erabakiak hartzeko gaitasuna
- Harremanak izateko eta komunikatzeko gaitasuna
- Aldatzeko eta berrikuntzarako prestasuna eta ikasteko gaitasuna
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Prestasuna
- Dinamismoa

II. ERANSKINA - HAUTATZE PROZESUETAKO FASEEN ETA GEHIENENKO PUNTUAZIOAK ETA GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEEN LABURPENA.

GARAPENENKO TEKNIKARIA*

FASEA	GEHIENENKO PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK
1. GAITASUNEN ANALISIA ETA EZAGUTZEN ANALISIA	40	Gutxieneko irizpidea: 50 handienen arteko puntuazioa
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	40	20
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	---

*Ezintasunak dituzten pertsonen artean betetzeko gordeko da garapeneko teknikariaren postu bat, halakotzat harturik azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako ezintasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 4. artikuluan zehaztutakoak, baldin eta hautatze prozesua gainditzen bada eta duen ezintasun maila eta dagokion postuko lanak betetzea bateragarriak direla egiaztatzen bada.

Erreserbaturiko postua hutsik gelditzen bada, hautatze prozesua gainditu duten gainerako hautagaien artean beteko da.

SISTEMETAKO TEKNIKARIA

FASEA	GEHIENENKO PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK
1. GAITASUNEN ANALISIA ETA EZAGUTZEN ANALISIA	40	Gutxieneko irizpidea: 25 handienen arteko puntuazioa
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	40	20
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	---

III. ERANSKINA - ONARTUA IZATEKO ESKAERA ORRIA.

Hautatze Prozesuen identifikazioa:

ADIERAZI "X" BATEKIN ZEIN HAUTATZE PROZESUTAN PARTE HARTU NAHI DUZUN:

- GARAPENeko TEKNIKARIA
 SISTEMETAKO TEKNIKARIA

Eskatzailea:

DEITURAK ETA IZENA:		NAN (hizkia barne)	
		JAIOTZE DATA	
HELBIDEA (kalea edo plaza, zenbakia eta solairua)	POSTA KODEA	BIZI ZAREN UDALERRIA	
	PROBINTZIA		
MUGIKORRA	TELEFONOA	E-MAILA	

ADIERAZI "X" BATEKIN ZEIN DOKUMENTAZIO AURKEZTEN DEN:

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo identifikazio dokumentu baliokidea.
- Curriculum Vitae eguneratua.
- Informatikako, Telekomunikazioetako Ingeniaritzako gradua unibertsitate titulu ofiziala edo homologagarria, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela egiaztatzen duen agiria.
- Bete behar den postuarekin lotura duten beste titulazio akademikoak, eskatutakoaren osagarriak.
- Euskara mailaren ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia.
- Ingeleseko titulazio ofizialak.
- Lan bizitzaren ziurtagiria (eskaera datara eguneratua).
- Postuaren, zereginen, kontratuaren iraupenaren, lanaldiaren eta abarren xehetasunak eskaintzen dituzten beste ziurtagiriak (enpresa ziurtagiriak).
- Ezintasunak dituzten pertsonen kasuan: organo eskudunak egindako ziurtagiria, legez % 33ko ezintasun maila edo handiagoa aitortzen duena, eta hala badagokio, probetan denbora edo/eta baliabideak egokitze beharra.

OHARRA: Elkarrizketa/k, analisi pertsonala eta konpetentzialaren fasean, onartuak izateko eskaera orrian adierazitako datu guztiei dagokien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da, erkatu ahal izateko, eta baita orrian adierazitako merituak egiaztatzen dituen dokumentazioa ere. Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautatze prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

Prestakuntza osagarria:

BESTELAKO UNIBERTSITATE IKASKETAK	
DOKTORETZA, MASTER EDO GRADUONDOKO OFIZIALAK	
POSTUAREN EDUKIAREKIN LOTURIKO GAJETAN ZENTRO OFIZIALEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ETA MINTEGIAK	
IKASTAROA	IRAUPENA (Orduak)
INGELESA (Adierazi zein maila duzun Europako A1, A2, B1, B2, C1 edo C2 mailetan oinarrituta eta egiaztatirik duzun)	
MAILA	EGIAZTAGIRIA
Aitortua duzu legez ezintasuna duen pertsonaren izaera?	Ezintasuna duten pertsonak: adierazi azterketak egiteko egokitzapen berezirik behar duzun.
Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	



Jakinarazten zaizu IZFE, S.A.k egiaztatu ahal izango duela hautagaiak hautatze prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten hautagaiak.

Era berean, horretarako emandako epean hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo ez badu eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen, bere hautagaitzak ez du ondoriorik sortuko eta bere jarduera guztiak baliorik gabe geratuko dira.

Hautatze batzordeak ahala izango du suertatzen diren zalantza guztiak erabakitzeke eta aukeratze prozesua modu egokian bideratzeko beharreko akordioak egiteko, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Inprimaki hau sinatzean:

- (i) Aipaturiko deialdian eta hautatze prozesuetan onartua izateko eskatzen dut eta goian emandako datuak egiak direla, eta bigarren baldintzan eskatutako baldintzak betetzen ditudala adierazten dut; eta
- (ii) Deialdi hau eta hautatze prozesu hau arautzen duten baldintzak ezagutzen eta onartzen ditudala adierazten dut.

Non adierazi:

Data:/...../.....

Eskatzailearen sinadura: